

### III AITA-AMA DAN JAUNGOIKOA

*Aita! Ama!  
-Zer da, semetxoa?  
Jakín nahi neuke zelangoa dan  
gure Jaungoikoa.*

1

Bizia zor deusogu  
ta bereak gara,  
gure Jainkoa Aita ta Ama  
biak da batera.

2

Aita dogun aldetik  
ona ta sendoa,  
eta Ama lez errukitsua  
hori da Jainkoa.

3

Aita, haundi eginda  
gura gaituana,  
eta gaixoa gau ta egunez  
zaintzen dauan Ama.

4

Gure bidelagun da  
Aitaren antzera,  
ta semea noiz helduko dagon  
Ama biozbera.

5

Mundua egin dauan  
Aita Ahalguztiduna,  
eta zerua eskeintzen deuskun  
Ama on biguna.

6

Aita berbakoa da,  
ona ta zuzena,  
buruz Aita da, baina bihotzez  
Ama dau izena.

7

Aitak salbatzen gaitu  
Jesusen merituz,  
eta Ama lez bihotzak sutu  
bere Espirituz.

8

Berbaz ezin da, seme,  
nor dan ondo esan,  
Aita-Ama dan Jainkoarekin  
ume izan gaitezán.